

# Nola jardun eraso sexista bat gertatzen bada?

**1.-** Eraso jasan duen **emakumearengana** edo **emakumeengana gerturatu**, laguntza behar duen galdetu eta **bere erabakia errespetatuko** dugu.

**2.-** Jarrera matxistarik edo gogaikarririk gertatzen ari bada, jarrera hori eragiten ari den pertsonari gelditzeko eskatuko diogu, eta gelditzen ez bada, espazio horretatik bota egingo dugu.

**3.-** Emakumearekin batera, lasai egoteko moduko leku batera joango gara, eta laguntza eska dezakeela azalduko diogu.

**4.-** Emakumeak egoki baderitzo, **Udaltzaingora deituko** (943 344 343) dugu.

**5.-** Gerta daiteke **erasoa jasan duen emakumeak berehala ez erabakitzea** zer pauso eman nahi duen. Edonola ere, honako telefono-zenbaki hauek eman eta ondoko orriko jarraibideak azalduko dizkiogu.

**6.-** Azkenik, Udaltzaingoaren parte hartzerik ez bada izan, hurrengo egunean edo ahalik eta lasterren, gertatutako guztiaren berri eman Udaltzaingoa.



Errenterriako  
Berdintasunerako Kontseilua  
Consejo de Igualdad  
de Errenterri



## Informazioa, aholkua edo laguntza:

- Foru Aldundiaren larrialdietako gizarte-zerbitzuak: **112**
- Udaltzaingoa: **943 344 343**

## Laguntza medikua:

- Gertuen dagoen **anbulategira** joan edo **112** telefonora deitu.
- Eraso jasan duenak jakin behar du osasun-zentro batera joaten bada, arreta ematen diotenek salaketa izapidetzeko betebeharra dutela; horregatik, aztertu behar du gertatutakoari buruzko zer informazio eman nahi duen.
- Emakumeari **galdetu** bere konfiantzako **nork** lagun diezaiokeen **izapideak** egiten. Ez badu inor, ERABAKI nork lagunduko dion, baina **ez utzi bakarrik!**
- **Bortxaketa** izan bada, azaldu behar zaio **ez duela arropa aldatu behar** edo bere burua garbitu behar, frogarik ez ezabatzeko.
- Komeni da osasun-zentroan **lesio-agiria** eskatzea.

## Salaketa:

- Ertzaintza: **112**
- Salaketa jartzeak prozedura judiziala abiatzea dakar. **Emakumeak aholkularitza juridikoa eska dezake** salaketa jarri aurretik.

**OHARRA:** Eraso jasan duen **emakumea atzerritarra** bada, prozedura bera bete behar da, nahiz eta egoera erregularran ez egon; izan ere laguntza eta larrialdiko zerbitzuak jasotzeko eskubide bera du.